



HONDARRIBIKO UDALA

OLAZABAL KIROL SARIAK – DEIALDIAREN OINARRIAK

1. artikulua. Xedea.
Oinarri hauen xedea Hondarribiko kirolarientzat eta Hondarribiko kirolarekin zerikusi zuzena duten pertsonentzat Olazabal Sariak-en deialdia egin eta arautzea da.
2. artikulua. Parte hartzaileak.
Saria jasotzeko hautagai izan ahalko dira euren ibilbidea edo eguneroko zereginen sariaren helburu bera duten emakume eta gizonezko kirolariak, kirolari taldeak eta kirolarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.
3. artikulua. Hautagaien aurkezpena.
Sari hauetarako hautagaiak Hondarribiko kirol elkarteek eta kirol kazetariak aurkeztu ahal izango dituzte, hautagaiak saria merezi duela egiaztatzen duten merituen argibide-agiria erantsita. Salbuespen modura, ontzat emango dira kirolari hondarribiarrak dituzten Hondarribitik kanpoko kirol elkarten proposamenak.

Honako bi irizpide nagusiok hartuko dituzte kontuan proposamenen egileek:

- 2012. eta 2013. urtean zehar Hondarribiko kirolariak, kirolari taldeak eta kirolarekin zerikusia duten pertsonak bildutako merituak eta egindako ibilbidea kirolaren alde.
- Egindako lanak Hondarribian gizarte eragina izatea.

Horiez gain, kirol elkarte bakoitzak azkeneko bi urteetan bere kirolariak izandako kirol emaitza nabarmenenak aurkezteko aukera izango du, bereziki, Estatu mailako txapelketetan eskuratutako dominak eta Europako nahiz munduko txapelketetan izandako parte hartzea.

Hautagaiak 2014ko urtarrilaren 27ko 13:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira BAZen (Nagusia, 20 – 20280 Hondarribia), bulego ordutegian.

4. artikulua. Hautatzeko modua.
Udalaren web gunean egingo den bozketaren bidez hautatuko dituzte 16 urtetik gorako Hondarribiko herritarrek sarituak. Modu digitalaz gain, BAZen eta Hondartza Kiroldegian herritarren eskura egongo diren idazkien bidez ere eman ahal izango da botua 2014ko otsailaren 17ra arte. Herritar bakoitzak behin bakarrik eman ahal izango du botua eta horretarako N.A.N zenbakia eman beharko du.
5. artikulua. Sariaren ezaugarriak.
Epaimahai kalifikatzaileak proposatuta, Olazabal Kirol Saria merezimendu gehien egiaztatzen dituen emakume nahiz gizaseme kirolari, kirolari talde edo kirolarekin zerikusi zuzena duten pertsonen emango zaie. Saria sinbolikoa izango da.

Aipamen berezia egingo zaie diploma baten bidez, halaber, Estatu mailako txapelketetan domina eskuratutako kirolariak eta Europako nahiz munduko txapelketetan parte hartutakoak.

Hondarribiko Udalak bere aldetik beste kirolariren bat, talderen bat edo kirolarekin zerikusia duen pertsonaren bat aintzat emateko eskubidea izango du.

6. artikulua. Epaimahaia eta esleipen-irizpideak.
Herritarrek hautatutakoak balioetsiko ditu Epaimahaia. Berdinketa gertatzen bada, epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du zein hautagai izango den saritua, honako irizpideon arabera:
 - 2012. eta 2013. urtean zehar Hondarribiko kirolariak, kirolari taldeak eta kirolarekin zerikusia duten pertsonak bildutako merituak eta egindako ibilbidea kirolaren alde.
 - Egindako lanak Hondarribian gizarte eragina izatea.



Epaimahai kalifikatzailea Hondarribiko Alkateak, kiroletako zinegotziak, kirol kazetari batek, herritar batek eta kirol teknikariak osatuko dute.

7. artikulua. Ebazpena.
Hondarribiko Alkate-Lehendakariari dagokio Olazabal Kirol Sariak epaimahaiak proposatutako pertsoneri ematea.